



Austeritatearen itzulera

Urtarrilaren 17an Europako Legebiltzarrak Egonkortasun Itunaren erreforma onartu zuen. Arau eraberrituek aurrekontuaren zorroztasuna indartzen dute eta joan den hamarkadan ezagutu genuen austeritatearen ereduari ateak zabaltzen dizkiote berriz ere. Itun berria ez da 2010eko doikuntza gogorraren parekoa, baina Ekonomi eta Diru Batasunaren ortodoxiaren itzulera dakar. Jakina da Maastrichteko Itun honek defizit publikoaren eta zor publikoaren sabaia Barne Produktu Gordinaren %3an eta %60an ezartzen dituela, hurrenez hurren. Batez ere defizitaren muga betetzeko agindua irmoki betetzea eskatuko zaie estatu kideei.

Estatu ugariak duten zor publikoaren tamaina handia kontuan hartuta, %60ko mugara jaitea ezinezkoa da, baita epe ertainean ere. Sei estaturentzat zor publikoa BPGarekiko %100aren gainetik kokatzen da eta beste hiruk %70 gainditzen dute. Aurreko hamarkadako doikuntza gogorraren ondorioz, batez ere Europa hegoaldeko estatuek gizendu dute zorra (Grezia, Italia, Frantziako Estata, Portugal eta Espainiako Estata). Bestalde, gaur egun defizitaren muga hamaika herrialdek gainditzen dute. Kontu publikoak doitzeko agindu berri honek Europako Batasuneko estatu kideen artean 100 mila milioi eurotako aurrekontu murrizketa ekar dezake, Europako Sindikatuen Federazioaren arabera. Aurrekontu publikoaren aus-

Pandemia garaiko salbuespenaren ondoren austeritatearen itzulera Europako Batasuna ohiko eredu neoliberalaren ardatzetan birkokatzen du

teritate zaharberrituak atzerapausoak ekarriko ditu gehiengoaren bizi baldintzetan zein gizarte kohesioan epe laburrean.

Pandemia garaiko salbuespenaren ondoren austeritatearen itzulera Europako Batasuna ohiko eredu neoliberalaren ardatzetan birkokatzen du. Inflazioaren aurkako borrokaren aitzakiarekin azken bi urteetan Europako Banku Zentralak interes tasaren neurri gabeko igoerak hartu ditu. Igoera horren emaitza ez da izan inflazioa murraraztea, baizik eta banketxeen mozkinak biderkatzea. Bada, jokabide hori ekonomi politika zorrotzerako bidean lehen urratsa izan da. Behin eta berriz,



MIKEL ZURBANO
EKONOMIALARIA

austeritatearen kulturaren eta hegoaldeko bere bazkideekiko mesfidantzan harrapatuta dagoen Alemania izan da estrategia zaharrera itzultzeko eragile behinena. Ikusgai dago joan den hamarkadako atzeraldi handiaren esperientzia traumatikoak eta itun berriak jasotzen dituen malgutasun mekanismoek nolabaiteko arnasaldia ekarriko duten.

Nolanahi ere, Next Generation fondoen bultzadaren atzean antzeman zen estatu kideen arteko nolabaiteko kooperazio dinamikak ez dirudi jarraipena izango duenik. Behin eta berriz estatuen arteko lehia da gailentzen ari dena. Lehia horri ortodoxia neoliberalaren itzulera gehitzen badiogu, Europako Batasuneko ohiko lurralde eta gizarte desegonkortasun eta desparekotasunak areagotu baino ez dira egingo. Trantsizio ekologikorako bidea ere ez da erraza izango lehentasunak arlo fiskalera makurtuko badira. Eraikuntza instituzionalaren arazoez gain, enpresa handiek eta lobbyek Europako instituzioen gainean duten presio ahalmen indartsua aintzat hartzen badugu –glifosatoaren eta bestelako pestiziden erabilera luzatu izana, kasu– bistakoa da ekonomi esparru zaharkitua eta bidegabearen sarean kaiteatuta jarraituko dugula. Epe labur eta ertainean zerga sistemaren erreforma sakon eta bidezkoa ezinbestekoa da babes sozialean, errenta birbanaketan eta trantsizio ekologikoan atzerapausoak eman ez daitezten. ●